



Jende ugari bildu zen herriko komentuan Alegiako Txintxarri Abesbatzaren kontzertua entzuteko.

Hasiera paregabea

■ Doinu erlijiosoak, tradizionalak eta egungoak entzun ziren ostiralean V. Musika Topaketetako lehenengo saioan

Txintxarri Abesbatza ederki aritu zen Danok Kide elkarteak antolatutako V. Musika Topaketan lehenengo saioan. Ugari izan ziren Brijitarren komentura hurbildu ziren herritarrak Mendelssohnen, Aita Donostia, Javi Busto edo Serraten doinuak, besteak beste, entzun zituen Alegiako abesbatzaren ahotsetik. Kontzertu paregabea, ikusleek ongi eskertzen jakin zutena. •



VIII. Gau
Multimusikala
abenduarren 19
eta 20an
herriko hainbat
tokitan₃

GIZARTEA/ 4

Mus Sorpresatxoa eta Udazkeneko Pizza pintxoak
Udal euskaltegiko sariketan garaile

GIZARTEA/ 5

Errausketaren aurka eta atez ateko sistemaren alde, Lasarte-Oria Bizirik! taldea

GIZARTEA/ 6

Genero indarkeriaren aurkako eguna ospatuko da azaroaren 25ean

Pilar Catalinaren ahots bikaina Kultur Etxean

Pucciniren *O mio Babbino caro*, Goizeko izarra abesti herrikoia edo Manuel de Fallaren *Jota*. Horiek dira larunbata arratsaldean, Pilar Catalina soprano lasarteoriarren kontzertuan entzun ziren doinuetako batzuk. Amaia Zipitria pianojolearen laguntzaz kontzertu paregabea eskaini zuen sopranoak. Abesti batzuetan, Pilarren alaba Amaia Lizarragak duoa egin zuen amarekin. •



SUGATE SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

plan renove+**%10** desk.



vegasa

Hesi lehenengo egunetan beazak

7 GARANTIA WARRANTY

12

FORMA

Pintore kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
LASARTE-ORIA
www.sugate.net

‘Igeri egiten ikastea eta ongi pasatzea da garrantzitsuena’

TXINTXARRI

Buruntzaldeko Igeri Taldea Lasarte-Oria eta Andoaineko igeriketa taldeek osatzen dute. Herri bakoitzean entrenatzaile bat dago eta Lasarte-Orian Ruben Villalon da lan hori burutzen duena. Iaz hartu zuen taldearen ardura eta horregatik, harekin bildu gara taldearen eta 2009-2010 denboraldiaren berri izateko.

Ruben Villalonek bere bigarren urtea du entrenatzaile lanetan, “iaz entrenatzaile berria nintzenez, haurrak nire lan egiteko erara moldatu behar ziren eta taldeari dinamika hartzea kosta zitzaion,” aipatu digu.

Aurten ordea, urritik dago haur, gazte eta helduekin lanean, “guztira 65 bat igerilari ditugu. Andoainekoak 15 claude eta gainontzekoak herrikoak dira.”

Eta talde sendoa lortu duela esan digu, “aurten talde bezala hobeto gaude lanean. Igeriketan, gainera, taldea egitea oso garrantzitsua da. Igeriketa egiterakoan bakarrik zaude eta igerilekutik atera eta lagun taldea ez baduzu, ez zaude eroso.”

Andoaingo taldeak entrenatzailek ez izateak ere taldea garatu eta harremanak sendotzea ekarri du. “Entrenatzaile bila genbiltzala haurrak Lasartera etorri dira. Egoera hau ona izan da, taldea egin eta haurrak elkar ezagutzeko,” onartu du.

Eta, honetaz gain, “denboraldi hasieran, helduen mailan Hernaniko taldearekin bat egin dugu,” jakin arazi digu

Igeri egiten hasi

Lan eta lan dabil haur eta gaztetxoekin eta “guretzat garrantzitsua da txikitatik ikasten hastea, lehenago ezagutzen dituzte teknika eta kontzeptuak,” adierazi du.

“Lasarte-Orian aurrebenjamin mailan hasi daitezke 7 urterekin, Andoainean ez. Han benjamin mailan 8 urterekin hasten dira. Gainera, hemen anai zaharrak baldin badituzte taldean 6 urterekin ere hasi zaitzekete,” azaldu digu.

Eta “hau da gure apustua. Izan ere, beste kiroletan beranduago hasten dira. Badakizu beti dago futbolarekin borroka egin beharra. Igeriketa ez da futbola bezala guztiek proba egin nahi dutela. Proba egin eta gustuko badute guretzako hobe,” gaineratu du.

Hala ere, “igeriketa 30 urterekin ere egin daiteke. Gutxitan gertatzen da, baina posible da,” adierazi du.

Entrenamenduak

Era honetara, txikiek bi egun entrenatzen dituzte, gaztetxoek hiru eta helduek, berriz, bost egun egiten dituzte. Eta gainera, “guk beste elkarte garrantzitsuek baino gutxiago entrenatzen dugu. Haiak 6 egunetan entrenatzen dute larunbata goizetan ere,” jakin arazi digu.

Baina entrenamenduaren helburua ez dira lehiaketak Rubenentzat. “7 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek kasuan, igeri egiten ikastea da garrantzitsuena eta ongi pasatzea. Lehiaketak ez dira garrantzitsuena,” adierazi digu.



Haur eta gaztetxoek ongi pasatzea eta gusatura egotea da Buruntzaldeko Igeri Taldeko entrenatzaileen helburua.

“Eta 12 urtetik aurrera, bi aukera dituzte. Bata lehiaketetan parte hartu, lehiatu eta marka egin edo nahi dituzun lehiaketetan parte hartu inongo presiorik gabe,” azpimarratu du.

Beraz, helburua adierazi digunez, “ongi pasatzea da noski. Baina, era berean, haur eta gazteek lan egin eta horren arabera emaitzak lortzea ere bada. Bakoitzak bere helburuak egitea.”

Lehen lehiaketak

Hala ere, lehenengo astean hasi ziren helduak lehiatzen. “Denboraldi hasiera da eta ez ditugu emaitzak espero.

Lehiaketak igerilariak nola dauden ikusten laguntzen digu eta entrenamenduak zorrotz behar diren edo ongi goazen. Lehiaketak garrantzitsuetara arte, hauek proba besterik ez dira,” esan digu Ruben Lasarte-Oriako igerilariaren ordezkariak.

Txikien erronka

Txikiei dagokionez, hurrengo asteburuan dute lehenengo proba.

Trampolinean bakarrik, salto eta itzulipurdia nola egin ikasten joango dira pixkanaka. Lehenengo lehiaketa izanik, haiek ongi pasatzea da garrantzitsuena,” onartu digu.

Txikiekien erronka handirik ez dagoela aipatu digu. Helduekin, ordea, “gure taldearentzat Gipuzkoako txapelketa da garrantzitsua igerilari gehien eramaten dugun lehiaketa delako,” onartu digu eta “elkarteko gutxi batzuk doaz Euskadikora lehiatzera eta Espainiako txapelketarako txartela zail da lortzea,” jarraitu du.

Hala ere, “iaz hamalau segundo-ehunenetara geratu zen gure igerilarietako bat. Ea aurten zer gertatzen den. Aukerak ditu 50 edo 100 crawl proban,ikusiko dugu,” adierazi du Buruntzaldeko entrenatzaileak. •



LOKE eta Judolaneko judokak Amurrioko lehiaketan eskuratutako domina eta sariekin.

Arg: Gorka Aristegi

LOKEko judokak dominak eskuratu dituzte Amurrio eta Bordelen

Lehenengo asteburuan, LOKEko judokak kilometro dezente egin behar izan zituzten. Izan ere, larunbatean, azaroaren 14ean, Amurrio eta hurrengo egunean Bordelen lehiatu baitziren. Emaitza paregabeak lortu zituzten eta azpimarragarria benetan Esteban Martinezen asteburua.

Amurrioko txapelketa

Larunbatean, Gorka Aristegik entrenatzen dituen infantil eta kadeteko gaztetxoek Amurrioko txapelketan aritu ziren lehiatzen eta urrezko domina bat, bi zilarrezko eta brontzezko bat ekarri zituzten Lasarte-Oriara

Kadete mailako Esteban Martinez izan zen Amurrioko txapelketa. “Errez irabazi zuen eta bere kategorian hobereena zela erakutsi zuen,” azaldu digu LOKEko entrenatzaileak. Bestetik, Josu Olmos kadeteak eta Oscar Garrido infantilek bigarren bukatu zuten bere kategorietan eta Fermin Baldak, berriz, hirugarren.

Bordeleko txapelketa

Igandearen Esteban Martinezek Bordelen, urrezko domina lortu zuen 55 kilo azpiko kategorian. “7 borroka irabazi zituen. Horrela jarraitzen badu hau izan daiteke bere urtea,” adierazi du Aristegik. •

Multimusikal zabala abenduak 19 eta 20an

Ostiralean aurkeztu zuten tabernetan eta Andatza plazan egingo den musika jaialdi erraldoia

TXINTXARRI

Abenduaren 19 eta 20an burutuko da VIII multimusikala Andatza plazan jarriko den gunean eta herriko zortzi tabernetan. Musika eskaintza zabala izango da, guztira Euskal Herriko hainbat tokitatik eta kanpotik etorritako 20 talde inguruk hartuko du parte. Ostiral gauean aurkeztu zuten antolatzailleek jaialdi erraldoia Jalgin, bertsoak, musika eta hitza elkartu zituen ekitaldi ikusgarri batekin. Berrikuntzak badiu aurten multimusikalak, Okendon ezin egin eta Kaleko gunea Andatza plazan jarriko da aurten, eta bertan kultur azoka bat irekiko da larunbat eta igandean. Larunbateko ekitaldiak goizean hasi eta hurrengo goizera arte luzatuko dira. **Etan igandea ere berezia izango da, bertso bazkari, DVD emanaldi eta kontzertu lasaiarekin.**

Jalgi bete egin zen ostiralean VIII. multimusikalaren aurkezpenarekin. Denetarik izan zen, bertso, musika akustiko, bideo emanaldi, eta azkenik arramazka herriko taldearen kontzertu eta Petti bakarlararen kantaldiarekin amaitu zen goizaldera. Aurkezpenarekin gogoratu zuten, duela hamar urte hasi ziren herriko gazte batzuk Txorimalo Gazte Kolektiboa sortu eta herriko gabeziei erantzuteko ekintza ezberdinak egin. Ondoren etorri zen I multimusikala 2002ko inozente egunean abenduaren 28an. Aintzane Usandizaga eta Tasio Arriza-



Arramazka herriko taldea, VIII. multimusikalaren aurkezpenarekin, Jalgin ostiral gauean.

balaga aurkezleen galderei erantzunez Harkaitz Izagirrek eman zuen Txorimaloren sorreraren berri eta bideo batean laburbildu zen ondoren multimusikalaren historia. Ikusleen txaloen artean, urte hauetan parte hartu duten taberna eta musika taldeei omen egin zitzaizkien.

Laz emandako pausua nabarmendu zuten ondoren: aste buru osora zabaldu zen jaialdia, gune bat jarri Okendon (aurten Andatza), kantua sortu eta KDa atera. Aurten bide berdinetik jarraituko dutela aipatu zuten. Jaialdi herrikoia antolatzeke, borondatez lan egiten duten gazte ugari da herrian baina horrelako jaialdia antolatzeke diru iturrien beharra azpimarratu zuten antolatzailleek eta auto-

gestioa gauzatzeko bonoak jarri dituzte salgai, banaka edo koadrilan eskuratu daitezkeenak. Bestalde eltzetxoak jarriko dituzte tabernetan, herriko jatetxe bateko otorduen zozketa egingo dute (euro batean salgai daude txartelak), KDak jarriko dituzte salgai, eta taberna batzutan termometro ekonomikoa jarriko dute uneoro beharrei erantzuna nola doan jakiteko.

Ondoren sortu berri den Kaleko Musika Eskolako Amaia Amianok ekimen honen berri eman zuen, 11-12 lagun biltzen dira elkarriz besteak beste gitara, tronpetak edo tinbalak jotzen erakusteko. Multimusikalaren parte hartuko dute eta Eskolako kide batzuek 2008ko kanta jo zuten.

Beñat Esnaola eta Aitzol Lasak eman zuten ondoren aurtengo egitarauaren berri. Larunbat gaua luzea izango dela, igandea lasaiagoa eta astelehenean Santo Tomas dela gogoratu zuten. Zortzi tabernetan izango dira kontzertuak, Ilargi Udaberri, Jalgi, Sustrai, Obelix, Timon, Abend eta Sirimirin.

Kontzertuak

Hainbat taldek parte hartuko dute VIII. multimusikalaren: tabernetan, Cant Explain eta Aldexo, Jalgin; Valium eta Xuorum, Sustrain; Norte Apache eta 121 Crew, Udaberri; Erru gabe, Skatu eta Txurustada, Xirimirin; Namek Planet eta Oreindik, Abend-en; karaokea Timon.en eta gauean DJak izango dira

Grassman Jalgin, Selektah Stepi Ilargin eta Aritz Sound System Obeliken.

Andatzako gunean, larunbatean 19:00tan The Skartats, valentziarrek joko dute eta 22:00tik aurrera Skasti, Zezenaren taldea, Beste Bat eta Drum & Bass festa goizaldera arte.

Aldarrikapenak ere tokia izango du multimusikalaren eta larunbat eguerdian manifestazioa egingo da musika denona dela aldarrikatuz.

Andatza plazan Kultur azoka jarriko da bi egunetan, besteak beste Senegal, Peru, Sahara edo Valentziako produktuek salgai izango dira.

Valentziatik musika taldeak eta hainbat lagun etorriko dira, 300 kilo laranja ekarri eta 200 lagunentzako paella egiteko asmoa dute.

Beste hainbat gauza ere izango dira, malabareak, Txavi Idarreta aktore valentziarraren emanaldi, poteo musikatua, bazkari herrikoia, larunbatean eta igandean aldiz, sagardo, ardo eta pintxo dastaketa, bertso bazkari berezia, Amaia Agirre Unai Muñoa, Miren Artetxe, Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Beñat Gaztelumendirekin, Berri Txarrak musika taldearen filme bat ere emango da arratsaldean.

Igandea musika aldetik lasaiagoa izango da, eguerdian Txalagore, eta arratsaldean Makulu Ken eta Etxeko taldea izenekoak izango dira. www.blogari.net/mltimusikala webean jarri dute antolatzailleek informazio gehiago. •

Danak Kide elkarteak Jaiotzen Lehiaketako oinarriak aurkeztu ditu

Gabonak iristear daude. Pinua, turroia... eta nola ez jaiotzak ere hor izango dira. Urtero bezala, Danok Kide Guraso Elkarteak Jaiotzen Lehiaketako oinarriak argitaratu eman ditu. Urte asko dira jada lehiaketa hau antolatzen dutela, eta aurten ezin falta.

XVII. lehiaketan parte hartu nahi dutenek, jaiotza abenduaren 19an eta 20an, Guraso Elkarteak Blas de Lezo kalean duen egoitzan utzi behar dute, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Lehiaketako oinarriak

Banaka nahiz taldeka hartu daiteke parte lehiaketan baina bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake.

Egindako jaiotzarekin batera, aparte, gutunazal batean egileen izenak sartu behar dira, azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzi behar da eta antolatzaillei bidali.

Jaiotzak, gehienez, 80x60 zentimetrotako neurriak izan behar dituzte eta ez da onartuko hondo sendorik ez duen jaiotzarik, ezta Lasarte-Oriako lehiaketa honetara aurreko urteetan aurkeztutako jaiotzarik ere.

Azkenik, lehiaketako oinarrien arabera, jaiotzarik onena aukeratu duen taldeak, sariak banatu gabe utzi ditzaizke, baldin eta lanak kalitatezkoak ez direla erabakitzen badu.



Artista ugari dagoela herrian ezin da ukatu. Horren isla aiazko proiektuak.

Mailak eta sariak

Lau maila bereziko dira epaitzerako orduan eta, era

berean, sari ezberdinak izango dituzte. A mailan, 6 eta 9 urte bitarteko haurren irabaz-

leak 60 euro eta trofeoa jasoko du eta bigarren sailkatuak, 40 euroko diru saria. B mailan, berriz, lehenengo sariak 70 euro eta trofeoa izango du saritzat eta bigarrenak, 50 euro. C mailan, 14urteetik 17rako tarateko gazteen kasuan, 90 euro eta trofeoa izango ditu lehen sailkatuak, eta bigarrenak 60 euroko ordain saria.

Azkenik, D mailan, 18 urteetik gorako taldean 120 euro eta trofeorekin egingo da lehen sailkatua, eta bigarren saria 90 euro eskuratzeko. Sari potolorik ez lortu arene, kontsolazio saria dago onartutako lan guztien egileentzako. Elkarteak, 15 euro emango du aurkezten den jaiotza bakoitzeko. •

Euskara ikasleak sukaldari fin

■ “Mus Sorpresatxoa” eta “Udazkeneko pizza” izeneko pintxoek irabazi zuten Udal Euskaltegiko txapelketa ■ Epaimahaikoek jaki guztien kalitatatea azpimarratu zuten

Urtero legez, Udal Euskaltegiak Pintxo Lehiaketa antolatzen duen pasa den ostegunean eta ikasleek irudimenari eragin eta sukaldaritzan duten trebezia erakutsi behar izan zituzten ahalik eta pintxo original eta goxoena prestatzeko. Guztira 20 pintxo egin zituzten, 10 goizeko taldeek eta beste hamar arratsaldekoek, baina ikasleak direnez, pintxoaren izenburuak, osagaiak eta egiteko modua landu zituzten eta bestearen aurrean azaldu. Beste era batera ondo pasatuz euskaraz ikasi daitekeela argi daukate euskaltegiko arduradunek eta urte amaieran antolatzen duten ekintza honek harrera oso ona du beti ikasleen aldetik. Euskararen munduan ere ezin falta gastronomia.

Ederki ahalegindu ziren goiz eta arratsaldean euskara ikasleak eta aurkeztu zituzten pintxo hotz guztiak izan ziren oso landuak. Ttakun kultur elkarterako epai mahaikoei kostatu zitzaizkien bat aukeratzeko. Goizean Aritz Zerain eta Asier Gorostegik aukeratu zuten euren iritziz onena zena eta arratsaldean Esti Garmendia eta Jon Altunak.

Lauek goraiatu zuten aurkeztutako pintxo guztien kalitatea. Itxura eta izen bereziak zituzten orotara aurkeztu ziren 20 pintxo koloretsuek, besteak beste, goizeko Piper Ona, Mediterraneo Pasteltxoa, Udazkena, Antxoa Txalupa, Pintxo Mundiala, Koktela, Triku Berdea, Txalupa, Mus

Euskara ikasleak sukaldari bihurtu ziren ostegunean Udal Euskaltegian. Goiz eta arratsaldean pintxo lehiaketa burutu zen, talde bakoitzak bina pintxo hotz prestatu zituzten eta bi irabazle izan ziren, Mus Sorpresatxoa goizean eta Udazkeneko pizza arratsaldean. Talde guztiak ahalegindu ziren eta maila handiko mokaduak dastatu zituzten Ttakun Elkartereko epai mahaikoek. Zapore ona eta aurkezpen dotorea zuten guztiek eta kosta zitzaizkien irabazlea aukeratzeko. Pintxoak prestatu ondoren, taldeko batek bestearen aurrean azaldu zuten osagaien zerrenda eta prestatzeko modua.



Mus Sorpresatxoa, pintxoaren egileak kontent lehenengo saria jasotzerakoan. Goizeko onena goian, arratsaldekoa behean.



Udazkeneko Pizza, arratsaldeko irabazlea prestatzen

Sorpresatxoa eta Pintxo Ederra edota arratsaldeko Udazkeneko Pizza, Alakrana, Senegalgo Patera, Andaluziako Piperra,

Hartzakiñaki.com, Kutixia eta Endibia Betea. Izen bitxiak eta denetarik osagai, itxura zein koloreak.

Zalantzarik gabe, euskaltegiko ikasleek sukaldari trebeak direla argi utzi zuten.

Hamar pintxo, hamar plazer txiki aurkeztu ziren goizean eta beste hamar arratsaldean eta guztien artean, Mus Sorpresatxoa eta Udazkeneko Pizza izan ziren irabazleak. Behin epai mahaikoek deliberatu, erabakiaren berri eman eta irabazleek saria jaso ondoren taldeek egindako pintxoak dastatzeko aukera izan zuten Udal Euskaltegiko ikasleek.

Irabazleek bonboi kaxa ederra eta diploma bat jaso zituzten sari. Sari egokiak, pintxoak dastatu ondoren, zer hobe postre moduan txokolateta baino ?•

XV. Pintxo Lehiaketako irabazleak

Goizeko taldeen artean **Mus Sorpresatxoa** izan zen pintxo irabazlea. Osagaiak; ogi xigortua, patata egosia, Mousse de Canard, kiwia, mahats pasak eta ozpin balsamikoak. Erraz prestatzeko moduko mokadua da, etxean egiteko modukoa: Lehenik eta behin ogi xerra bat oinarri gisa hartu, bere gainean patata egosia, mousse xerratxo bat eta kiwia jarri eta azkenik, mahats pasa eta ozpin balsamikoarekin apaindu.

Arratsaldeko bost taldeen artean irabazlea **Udazkeneko pizza** izeneko izan zen: Ogi xigortua, sagarra, tomate, oregano, ahuntz gazta, pistatxoak, olio eta Modenako ozipina zituen osagai eta itxuraz pizza txiki edo miniatura zirudien baina ez zapoz.

Ogi xigortuaren gainean tomate eta sagar xerra bat zeramatzen hurrenez hurren eta honen gainean sakabanatuak, oreganoa, ahuntz gazta eta pistatxoak guztia olio eta Modenako ozipin pittin batekin gozatu.

Errezak eta goxoak, hasi al zarete prestatzen?

Grease musikalaren harrera ona Azpeitian

Azpeitian burutu diren Antzerki Amateurraren topaketen barruan, Landaberri antzerki eskolako gazte taldeak *Grease* musikal antzeztu zuen, lehenengo asteartean, azaroaren 17an.

Arratsaldeko 15:30ean, errepresentazioa hastear zegoela, Azpeitiko frontoia jendez gainetza aurkitu zuten lasarteoriatar gazte hauek.

Antzezte batzuek, gainera, bere estreinaldikoa izan zuten eta lehen proba hau era paregabean gainditu zuten.

Izan ere, frontoian zeuden irakasleek ongi pasatzea lortu

zuten eta bukaeran entzun zuten txalo zaparrada horren seinale izan zen.

Mikel Sarriegi dugu Landaberri antzerki eskolako gazteen irakaslea eta antzezlan honen zuzendaria. Lan ederra egiten erakutsi die eta horren isla Azpeitian lortutako emaitza da.

Elgoibar hurrengo saioa

Eta jada hurrengo errepresentazioa prestatzen dabilta, Elgoibarreko euskaltegian izango da, eta erronka, Azpeitian lortutako emaitzak errepikatzea. •



Herriko VII. Antzerki Astean Martin Lekuona Kultur Etxean egin zuten *Grease* antzezpina.

‘Atez ateko bilketaren bitartez, alde batera utziko dugu errausketa’

■ Donostian, azaroaren 28an, arratsaldeko 17:00etan errausketaren aurka egingo den manifestazioara joateko deia egin du *Lasarte-Oria Bizirik!* taldeak

TXINTXARRI

Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformaren Koordinadorak manifestaldia egingo egingo du Donostian arazoaren 28an, 17:00tan, *Parte-hartzea errespetatu. Errausketarik ez lelopean.* Hau dela eta, *Lasarte-Oria Bizirik!* Taldekidea den Javi Melchorrek inosalaldia izan dugu.

Lasarte-Orian atez ateko zabor bilketarik ez da egingo. Zer deritzozue?

Taldeak aurkeztutako mozioa, udal batzarrak gehiengo osoz onartutakoa, bertan behera geratu da.

Lotsagarria da PSOEk hartu duten norantza. Duela urte eta erdi, Udalak atez atekoa mar txan jartzeko konpromezua hartu zuen eta Udalbatzak onartutakoari muzin egin diote. Ez dakigu zertarako balio duten udalbatzak erabakitzen duenak.

Baina, azken urte honetan udalak urratsak eman ditu...

Herritarren artean inkesta bat egin da hondakinen gainean gure ezagutza zein den jakiteko eta gure ohiturak ezagutzeko. Inkestan jaso diren emaitzak oso baikorrak eta interesgarriak dira: gehiengoa errausketaren aurka agertu da eta era berean gehiengoak zaborra atez atekoren bitartez biltzeko prest dagoela esan du.

Baina, dirudienez alkateak beste irakurketa bat egin du:

“Udalbatzak gehiengo osoz onartutakoa, bertan behera geratu da

antza, herritarrek nahastuta daude eta ez dute inkesta ondo ulertu. Herritarrok memeloak ote gara?

Agian, lau urtetik behin bozkatzera goazenean ere nahastuta joaten gara eta agian berak jasotzen dituen bozka guztiak ez dira guztiz fidatze-koak, nork daki, akaso, herritarrek ez dute ulertzen bozka sistema eta nahastu egiten dira hau ematerakoan.

Gure ustez, emaitzak hor daude eta herriaren iritzia islatzen dute.

Inguruko herrietan atez ateko bilketarekin hasiko dira, zer dakizue horri buruz?

Hernani, Urnieta eta Oiartzunen atez atekoa ezartzeko pausoak ematen ari dira eta ziur gaude emaitzek arrazoa emanango digutela.

Beste lekuetan 5. edukiontzia alde egiten dute eta jada auzitan dago, bere emaitza kaxkarrak ikusita. Izan ere, 5. edukiontzia erik %35a soilik birziklatzen da, atez atekoaren %80aren aurrean.

Kontutan izan behar dugu, gaika biltzen ez den guztia erre-



Arg.: Lasarte-Oria Bizirik!

Javi Meltxor *Lasarte-Oria Bizirik!* taldeko kidearekin errausketa eta atez atekoari buruz solasean egon ginen.

gingo dela errauskailuan. Beraz, atez atekoaren kontra egiten duenak errauskailua eraikitzea babesten du.

Eusko Legebiltzarretik ere ez dituzue berri onik jaso, ezta?

Hilabeteetan, kostata, jaso ditugun 35.000 sinadurak ez dituzte kontutan hartu.

Errausketa saihesten duen eta atez ateko zabor bilketaren alde egiten duen hondakinen lege berri bati buruz legebiltzarrean hitz egin zezaten burutu genuen ekimen hau.

Baina, beste behin gaia eztabaidatzeari uko egin diote EAJ, PSOE eta PPK eta modu-

honetan 35.000 herritarren iritzia arbuatu dute. Berrito ere, instituzioek eta gure politikariek herri ekimenei eta herritarren nahiari bizkarra eman diote.

Herri ekimenak eta herritarren parte-hartzeak mesprexatzen dituztenei, agian, boto eske datozenean botoa uko egin beharko genieke. Behintzat, hori merezi dute!

Larunbatean manifestaldian parte hartzeko deialdia luzatu duzue, ezta?

Bai. Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformaren Koordinadorak larunbatean, arazoaren 28an, 17:00etan egingo duen

manifestaldia deitzen ditu herritarrek.

Urte batzuk dira errausketaren dantza hasi zenetik eta geroztik herritar askok errausketaren kontrako iritzia azaldu dugu manifestaldietan eta beste hainbat lekuetan.

Garbi utzi nahi dugu ezer ere ez dagoela erabakita eta errausketegiaren aurka borrokatzeko garaia dela. Herritarrok ezin dugu etsi, are gutxiago orain instituzioek bizkarra eman digutenean honetan.

Hau guztiarengatik, herritarrei kalera ater daitezten eskatzen diegu, gure ahotsa eta iritzia ozen entzun dezaten. •

“Atez atekoari kontra egitea errauskailua eraikitzea babestea da

Ekimenen deialdia

Lasarte-Oria Bizirik! plataformak ondorengo deialdiak egiten dizkie herritarrei:

- **MANIFESTAZIOA:** Azaroaren 28an, 17:00tan, Boulevardrean: *Parte-hartzea errespetatu. Errausketarik ez*
- **HITZALDIA:** Abenduaren 2an, 19:00tan, Manuel Lekuona kultur etxean: *Atez atekoa: gezurrak eta egia*
- **ELKARRETARATZEA:** Abenduaren 4ean, 19:00tan udaletxe aurrean. •



Eusko Legebiltzarrak Hondakinen lege berriaren alde bildutako 35.000 sinadurak arbuatu ditu, herritarrei bizkarra emanaz.

IKASTAROA

Ardo dastatzearen ikastaroa antolatu du Aterpeak

Aterpea dendari-elkarteak ardo-dastatzearen hastapenen ikastaroa antolatu du Lasarte-Oriako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren Merkataritzako Departamentuekin elkarlanean.

Ikastaroa datorren asteazkenean, azaroaren 25ean izango da, 19:00etan, Villa Mirentxu etxean.

Ekimen honen bidez, Udalak eta elkarreak herriko denda eremua sustatzeaz gain, Aterpeko bezeroak ardoaren kultura ezagutzera gonbidatu nahi dituzte.

Gainera, beherapenkupoiak eskuratu ahaliko dituzte, dendari-elkarteak kide diren establezimenduetan erosteko. •

ERAKUSKETA

Hondakinen prebentziarako astea Urbil Merkatal Zentruan

Hondakinen prebentziarako Europar Astea dela eta, Urbil Merkatalguneak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko garapen iraunkorrerako departamentuak, gaur goizean, 11:00etan, Urbil Merkatalguneko topagunean prentsaurreko bat antolatu du.

Prentsaurrekoan bi erakundeek 2008ko azaroaren sinatu zuten akordioaren emaitzak ezagutzera emango dute.

Honetaz gain, azaroaren 28ra bitartean, herritarrek informatu eta sentsibilizatzeko asmoarekin, Gipuzkoako hondakin prebentzioari buruzko erakusketa didaktikoa egongo da Urbilen.

Antolatu duten informazio gunetik pasatuz gero, konpost lagin bat hartu ahal izango duzue zuen etxeako loreetan erabiltzeko. •

Genero Indarkeriaren aurkako eguna, azaroaren 25ean

■ Konzentrazioa, globo askatzea, hitzaldia, filmak, antzerkia eta afaria dira egun horren inguruan Udalak antolatu dituen ekimenak

Datorren asteazkenean, azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna da.

Hori dela eta, Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak zenbait ekimen antolatu ditu udalerriko bizilagunak kontzientziatu eta inplikatzeko.

Azaroaren 25ean bertan, 10:00etan kontzentrazioa izango da Dorre parkean, Brigadatarren komentuaren ondoan. Honetan, Zentro Zibikoko emakumeek idatzi duten manifestua irakurriko da.

Ondoren, 12:00etan, leku berean, globo moreak askatuko dituzte aurten biolentziaren biktima izan diren emakumeen oroimenez.

Era berean, Clara Campaomor elkarreak *Pasos, Información ante posibles casos de violencia de género* hitzaldia eskainiko du 17:00etan Zentro Zibikokoan.

Filmak, antzerkia eta afaria

Ostegunean, berriz, 11:30ean Javier Balaguer zuzendariaren *Sólo mía* filma eskainiko dute Emakumeen zentro zibikokoan.

Ostean, arratsaldeko 18:00etan, Iciar Bollainen *Te doy mis ojos* pelikula ikusteko aukera izango da.

Azkenik, larunbatean, Zentro Zibikoko antzerki taldeak *2009 Odisea dónde Sea* lana eskainiko du Manuel Lekuona kultur etxean. Hitzordua 19:30ean izango da eta sarreak salgai daude dagoeneko leihatilan 2 eurotan.

Jarraian, 21:30ean, emakumeentzako ohiko afari herrikoia egingo da Txixardin Beltza jatetxean. Menuaren prezioa 28 eurotako da eta Emakumeen zentro Zibikokoan izena eman beharko da. •



Emakumeen aurkako genero indarkeria salatuko da azaroaren 25ean.

Adierazpen instituzionala

Azaroaren 25a dela eta, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aho batez onartu du adierazpen instituzional hau, Lasarte-Oriako Udaleko alkatetzak bere egiten duena.

Aurten azpimarratu nahi duguna zera da: emakumeenganako indarkeriak ikusten duguna baino adierazpide gehiago dituela. Eta, oraingoa ere, jende gaztearengan arreta jarri nahi dugu eta gure udalerrian indarkeria sexista jasaten duten neskek kanpainan ardatz bezala hartu.

Aurtengo kanpainaren leloa *Beldur Barik* da. Gazteak, berez, ez dira beldur, baina beldurra izaten ikasten dute; horregatik, baliabideak eman behar dizkiegu eta

ahul bihurtzen dituzten ezaugarriak identifikatzen irakatsi. Hori eginez, indarkeriaren prebentzioan ari gara lanean.

Izan ere, indarkeria fisikoa az gain, indarkeria sinbolikoa ere kontuan hartu behar dugu: ez da ikusten, baina horren bidez beldurra sortzen da emakumeengan. Indarkeria mota horrekin, neska gazteek egoera desberdinak bizitzen ikasten dute emakume izate hutsagatik.

Udalak neska gazteei ahultasunari aurre egiteko baliabideak emateko programak garatzeko konpromisoa hartu du eta, era honetara, boterea hartu dezaten erraztuz; eta mutil gazteekin ere lan egingo du, jarrera sexisten prebentzioa landuz eta

erasoen aurrean jarrera aktiboa hartu dezaten.

Aipatutako gutziaz jabetuz, Lasarte-Oriako Udalak bere eskumenen atalean eta indarreko legea aplikatuz, udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko konpromisoa hartzen du, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka. Arreta berezia jarri nahi du nerabeenganako eta gazteenganako indarkerian, horien parte-hartze aktiboa lagun.

Aldi berean, herritarrei gonbidapena luzatu nahi zaie, bereziki herriko neska eta mutil gazteei, azaroaren 25ean, hau da, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunean, egingo diren jardueretan parte hartzeko. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

SAHARAK EMAKUME IZENA DU argazki erakusketa Mundu bat GKEren eskutik. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan.

Erakusketa

AMETS BAT ERAIKIZ, Euskal Fondaoren eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Asteazkena, 25

Diaporama

ETIOPIA ETA KENIARI buruz arituko dira Diego Egizabal, M.Karmen Ormazabal eta Ane Barrenetxea. Jalgi kafe-antzikian, 21:30ean, EUSKARAZ.



Ostirala, 27

Antzerkia

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOKO EMAKUMEEK antzezlan bat eskainiko dute. Kulturetxean, 19:30ean.



Kontzertua gaur musikarien omenez kulturetxean

Santa Zezilia eguna, musika eta musikarien eguna, atzo izan zen, eta hori ospatzeko, gaur kontzertua eskainiko dute Udal Musika Eskolako kideek.

GAUR, ASTELEHENA
19:30EAN
KULTURETXEAN

Kontzertua

JON MINER ETA INTXIXU LOTIEN BANDA. Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan, EUSKARAZ.



Kontzertua

THE HOLLY'S taldearen emanaldia. Abend kafe-antzikian, gaueko 12etan.

Larunbata, 28

Jaialdia

JALGUNE ELKARTEAREN JAIALDIA. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:30ean

Kontzertua

SUSTRAI TABERNAREN LEHENENGO URTEURRENA ospatzeko Pedrada en la cara eta Obito taldeek emanaldia eskainiko dute. Sustrai tabernan, 19:00etan.

Igandea, 29

Zinea

VICKY BIKINGOA haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ.

Asteazkena, 2

Diaporama

LESAKARA eginiko irteera kulturalari buruz arituko dira Oinatx taldeko kideak. Jalgin, 21:30ean, EUSKARAZ

Osteguna, 3

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZAREN Ipuinaren ordua saioa 7, 8, eta 9 urteko haurrentzat. Haurrentzako bakarrik egongo dira. Kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ.



Larunbata, 5

Kontzertua

SUSTRAI TABERNAREN LEHENENGO URTEURRENA ospatzeko Aurka eta Despervicio taldeek emanaldia eskainiko dute. Sustrai tabernan, 19:00etan.

Osteguna, 10

Diaporama

ARGENTINARI buruz arituko da Alex Tetuan. Jalgi kafe-antzikian, 21:30ean, EUSKARAZ.

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea
Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Esazu irrati programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Etzeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etzerate kontzentrazioa egingo du 20:00etan. Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

EHNarekin arazoak izan badituzu

EHNarekin arazorik izan badituzu edo/eta informazio gehiago nahi baduzu, harremanetan jarri zaitetzeko posta elektronikoa honetan: lasarte@baieuskalherriari.org. Ez izan dudarik eta bidali mezua lasai asko!

Zakurra galdu da

Pastor aleman bat galdu da Zabaleta auzoko Hernani bidean. Dei du izena eta txipa dauka. Aurkitzen duenak dei dezala, 943 365 297.

Beltzak taldeko loteria

Beltzak Rugby taldeak gabonetako loteria salgai jarri du. Zozketatuko den saskia ikusteko eta loteriako boletoak eskuratzeko aukera Jalai tabernan izango duzue. Rugby taldeko kideek ere izango dituzte boletoak saltzeko, beraz, edo Jalai tabernan, edota rugbyko kide bati eskatu zure boletoa. Loteriari esker lortzen den diru guztia Beltzak Rugby eskolarentzako izango da.

Sahararen aldeko egutegia

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 kordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix eta Sustrai tabernetan egongo dira salgai 7 euroren truke. Bildutako dirua, janariaren euskal karabana antolatzen laguntzeko bideratuko da.

Haur baten zapata azaldu da

Urriaren 25ean ospatu zen Lasarte-Oria Bai! Kroseko egunean, haur txiki baten zapata marroia azaldu zen Jalgi kafe-antzikian. 3-6 hilabeteko haurrentzako zapata da. Galdu duenak Ttakuneko bulegoan jaso dezake.

Buruzpe Guraso elkartearen Loteria

Sasoeta-Zumaburu herri ikastetxeko Buruzpe Guraso Elkarteak salgai dauka dagoeneko Gabonetako loteria. Eskuratzeko elkartetik pasa daiteke asteazkenetan 15:00etatik 16:30etara.

Batxilergo tituluak

Lasarte-Oriako Institutuak jakin arazi nahi du 2008an bukatu zutenek, batxilergo tituluak jaso ditzaketela goizeko 9:00etatik 13:00ak bitar-

tean. Norberak jaso behar du, bestela nortasun agiriaren fotokopiarekin jaso daiteke ere.

Oztabideko loteria

Oztabide auzo-elkarteak Arranbide-Oztabideko aukerari jakin arazten die eguberriko loteria salgai dagoela. 19827 zenbakia da eta 3euroko (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteriako partaidetza eskatzeko aukera izango duzue. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta COVIRAN supermerkatuan (Oztabide enparantzan) erosi ahal izango dituzue.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzue; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Diego Egizabal eta M^a Karmen Ormazabal Lau aste inguru egon dira Afrikan

‘Gustatzen ez bazaizu ere, zuria, turista eta diru-kaxa ibiltaria zara Afrikan’

TXINTXARRI

Etioopia eta Kenia ibili ziren abuztuan lau aste inguru Diego Egizabal eta Mari Karmen Ormazabal beste euskaldun batzuekin batera. Datorren asteazkenean 21:30ean bertan jasotako irudiak ikusiz bidaia kontatuko dute Jalgin.

Zein inpresio ekarri duzue Kenia eta Etiopian zehar egindako bidaia...

Afrika Afrikatik bertatik baino ezin dela ezagutu, eta gure begi mendebaldar lanbrotsu hauek ez digutela uzten Afrikaren bazterrak ikusten, afrikarren kosmogonia esan nahi dut. Bizitzaz eta munduaz duten errepresentazioa asko aldentzen da guk dugunetik; eta horrek jakin-mina, gosea, piztu dit.

Zer dauka erakargarri Afrikak?

Alde batetik bere ondare naturala. Zoragarria da. Handia. Gure kaleetan txolarreak eta uxoak ibiltzen diren bezala; Nairobi nahiz Addis-Ababako faroletan marabuak dabilta. Lehenengo aldiz ikusi nituenean, argiteria konpontzen ari ziren bi langile zirela pentsatu nuen. Bestetik, ondare kulturala dugu. Ikuspegi antropologiko batetik, neolitikotik iraun duten erritotak eta bizimoduak gorde dituzten gizataldeak daude; nola edo hala saiatzaren diren irauten.

Nola begiratzen diote gizon-emakume zuriari?

Munduari buruz duten ezagutzak ematen dien betaurrekoetatik; guk beraiek bezala. Baina zeinen desberdinak diren haien eta gure betaurrekoak. Alde batetik diru-iturri gara. Bestetik, telebistaren bidez baino irudika ez dezaketenez bizimodu baten enbaxadore.

Taldean egin al duzue bidaia?

Bai, guztira sei lagun bildu gara. Denok ez genuen elkar ezagutzen, hala ere, argi genuen gure ibilbidea ez zela nazioarteko turismoaren ohiko zirkuitua, eta topatuko genituen azpiegiturak ere hala moduzkoak izango zirela. Nik uste uneoro denok argi genuela bat eginda baino ez genuela lortuko suerta zitezkeen gorabeheri aurre egitea. Gorabeherak azkar asko hasi



Hau da jazerka tradizionala, hirira doazenean, sarri kamiseta eta galtza motzaz jazten dute.

ziren, eta zorionez berehala lortu genuen taldea osatzea, adostasunak eraikitzea, eta tarteka-marteka bakoitzak behar zituen espazioak ematea ere. Bidaiatzeko talde zoragarria osatzea lortu genuen, bai horixe!

Zer moduz toki batetik bestera joateko? Autobusik trenik hartu al duzue?

Bidaia agentzia baten bidez bi jeep alokatu genituen gidari eta guzti. Bat Etiopian barrena ibiltzeko, eta bestea Kenyan barrena. Hiri batzuetan taxi moduko txirringatan ibili ginen. Hango garraio publikoak, zalanzarik gabe, badu bere xarma; presaka ez bazabiltza, noski.

Zenbat denbora eta non ibili zarete?

Gure taldeak Addis Ababan egin zuen bat. Aurretik Donostiako lagunek hiru aste eman zituzten Etiopiako iparraldeko hainbat menditan. Lasarte-arrok, aurreko astean Etiopiako ekialdean aritu ginen. Behin taldea Addis-Ababan batu zenean, Nairobirako bidea hartu genuen. Omorateko

muga-postutik pasa ginen, Turkana Lakutik gertu. Guztira, 25 egun eman genituen.

Zer moduz egunerokoa, otorduak, lo, dutxa,... eta eurekin komunikazioa?

Aldea handia zegoen Etiopia eta Kenyaren artean, baina aitortu egin behar dut, ibilbidea ondo antolatuta genuelako, ez zaigula falta izan non lo egin, zer ahora eraman edota non dutxatu. Azpiegiturak, dena den, oso eskasak ziren. Logeletan atek ez zuten kisketarik; xomorro beltzen bat ere tarteka ikus zenezakeen; dutxa ostein azalean geruza fin eta gorrixa moduko bat antzeman zenezakeen; bertako einjera (hemengo taloaren parekoa, baina biguna eta ozpindua); ortodoxoen eta musulmanen kantu hotsak goizean goizetik; eta abar... Honek guztiak gure egunorokoa xarmanta eta exotikoa egin dute. Eskerrak kafeari, ale osoak zartagian erre, txikitu, uretan jarri, eta sekulako kafea ematen ziguten.

Goserik samutu al duzue?

Gu ibili garen lekuetan behin-

tzat ez, pobrezia ikusi dugu, baina miseriarik ez. Errepide nagusienetatik zenbat eta gehiago urrundu, egoerak nabarmen egiten du okerrera. Gainera, eskualdetik eskualdera aldeak nabarmenak omen dira. Etiopian, esaterako, etnien arteko liskarrek eta botere harremanek baldintzatzen dute estatu mailako politika.

Nolatan egin zenuten Afrikako bi toki hauetara joateko plana?

Gure bidaia makinatu zuen laguna Marga Iturriza izan zen, esploratzaile eta bidaide bikaina izan dena.

Nolakoak dira bertakoak?

Besteak beste, autonomoak, bere burua aski dutenak, eleantzik -asko dira eskualdeko bizpahiru hizkuntza ezagutzen dituztenak-, oso-oso sinistunak, dantzazaleak, genero rolak zorrotz bereizten dituzte, eta europarrak barre egiten dute baina aldi berean miresten dute.

Konta iezaezue zerbait merezi duena, esanguratsua, barregarria, interesgarria...

Bidaia une lazgarri batean Margak esan zidana: "zuria, turista, eta diru-kaxa ibiltaria izan nahi ez baduzu... zer arraio izan nahi duzu Afrikan?" Esaldi txapel horrek lagundu zidan bertakoen inguruko erre-presentazioa aldatzen. Gozitzen hasi nintzen, eta inguruan gertatzen zena ulertzen hasi bertakozat gu-ni zer ginen nintzen konturatzean.

Nongoa duzue oroitzapenik goxoa?

Asko izan badira ere, bat

nabarmenezkotan, Lago Turkana-ren erdi-erdian dagoen sumendiaren kraterretara eginitako txangoa. Leku horretan hunkitu nintzen, lekuak txiki sentiarazi ninduen, baina aldi berean bete-betea.

Berrito joango al zinatekete?

Bai, noski. Hurrengo bidaia Tanzania izango da.

Zein jarrera dute Kenia eta etiopiarrek turistekin?

Gure sistema ekonomikoak sortzen duen bidegabekeria alderantziz pairatuko bagenu, guk beraiekin izango genukeen berdina. Zuria, turista eta diru-kaxa ibiltaria!, "Txikuela" xox batzuk aterako dizkiot. Bide batez esan behar dut, jatorrak, berritsuak, jakin-min handikoak, eta beti laguntzeko prest ere agertu zaizkigula, salbuespenak salbuespen, ziurrenik diru eta ondasun iturri garelako. Eta txikuela...

Hau eta beste gauza asko asteazkenean hilaren 25an 21:30ean Jalgin, ezta?

Addis-Ababatik Nairobirainoko bidea azalduko dugu. Ez da kanpoko turistek darabiltena, ez ohiko ibilbidea hautatu genuen, barruko turismoak darabilen zirkuitua. Horregatik gurean ez da egon hotel izardunik, ezta menua ingelesez agertzen zuen jatetxerik. Argazki zoragarriak egongo dira, baina kontaketa laguntzeko erabiliko ditugu. Ahozkoan oinarrituko dugu diaporama. Anekdotak ugarien bidez, Afrika Ekialdeko herri horien berri ematea da gure helburua. Hala bedi! •



Baringo lakuko flamenkoak eta pelikanoak.